







Energia kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %4,9 egin zuen gora abenduan, 2016. urteko hil berean izandakoaren aldean. Arloka, industrian %3,8 igo zen, etxekoan %12,3 eta hirugarren sektorean edo zerbitzuetan, berriz, %0,4 jaitsi zen.

2017. urtean metatutako kontsumoak %2,3 egin zuen gora, 2016an izandakoarekin alderatuta; etxeko sektorean %1,7 jaitsi zen, zerbitzu arloan %0,9 eta industrian, ordea, %4,1 egin zuen gora. Urte honetan, industrian gora egin duten sektoreak, besteak beste, hauexek izan dira: zementua (+%4,2), kimikoa (+%6,2), beiragintza (+%6,5) eta siderurgia zein galdagintza (+%6,4).

Gas naturala

Abenduan, gas naturalaren guztizko kontsumoak %2,3 egin zuen gora, 2016ko abenduan izandakoarekin konparatuta. Zentral termikoena %25,6 jaitsi zen eta gainerako sektoreena, aldiz, %7,4 igo zen.

2017. urtean metatutako kontsumoak %5,8 egin zuen gora, aurreko epealdiaren aldean, (+%15 CCTT-n eta +%4,2 gainerako sektoreetan).







Erregaiak garraioan

Azaroan, garraioan erregaien kontsumoak %17,1 egin zuen gora, 2016. urteko hil berean izandakoarekin alderatuta.

Azarora arte metatutako kontsumoa %6,9 igo zen, 2016koarekin erkatuta. Hala, gasolinen kontsumoak %5,2 egin zuen gora eta A gasolioarenak %7,1.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

Kanpoko Egoera








EAEtik kanpoko egoera

Petrolioaren kontsumoa munduan
 Abenduan, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 99,3 milioi kupel izan zen (2016ko abenduan izandakoaren aldean, %1,2 igo zen). Epealdi berean, Europar Batasunean %1,4 egin zuen behera kontsumoak, 13,9 Mbpd kantitatara iritsiz; Txinan %4,5 igo zen, eta 13,4 Mbpd kontsumitzera heldu zen eta AEBetan %0,1 igo zen, eta 20 Mbpd kopuruan kokatu zen. Munduan, oro har, azken 6 hilabeteetan, eguneroko petrolioaren batez besteko kontsumoa %1,5 igo da, Txinan %3, AEBetan %1,1 eta Europar Batasunean %2,3.

Energiaren kontsumoa Espainian
 Espainian, gas naturalaren kontsumoak %7,4 egin zuen gora abenduan, 2016ko hil horretan izandakoarekin alderatuta. 2017. urtean metatutako kontsumoak %7,9 egin zuen gora. Elektrizitatearen kontsumoari dagokionez, gora egin zuen abenduan, %4, 2016ko abenduan izandakoaren aldean. 2017. urtean metatutako kontsumoak %0,6 igo zen, 2016an izandakoarekin alderatuta. Espainian, errepideetan erregaien kontsumoak %2,3 egin zuen gora azaroan, 2016ko hil berean izandakoarekin konparatuta; gasolinen kontsumoa %2,8 igo zen eta gasolioena %2,2. Azarora bitartean metatutako kontsumoak %2,5 egin zuen gora, 2016. urteko epealdi beraren aldean, (%2,4 igo zen gasolinena eta %2,5 gasolioena). Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoen kontsumoak %6,7 egin zuen gora azaroan, eta azarora arte izandako kontsumo metatua %8,9 igo zen, 2016ko epealdi berarekin erkatuta.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEK prestatua, AIE eta EIAren datuetan oinarrituta.

Energiaren prezioa



Energiaren prezioa

Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 64,2\$ (54,2€) izan zen abenduan. Urtebetean prezioak %18,8 egin zuen gora (%5,8 eurotan).

Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioa 57,9 €/MWh izan zen abenduan; duela urtebete zegoenaren aldean, %4,2 egin zuen behera.

Gas naturalaren prezioa

Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioa 17,8 €/MWh izan zen azaroan, eta %4,5 igo zen, 2016ko hil berean izandakoarekin erkatuta. Urrian, EGIX-en prezioa 18,4 €/MWh izan zen (2016ko urrian izandakoarekin alderatuta, %3,2 igo zen). Spot merkatuetan, abenduan, Henry Hub-en prezioa 9,6 €/MWh izatera iritsi zen eta Japonian 23,3 €/MWh, (2016ko hil horretan izandakoaren aldean, -%21,7 eta +%6,1 egin zuten behera eta gora, hurrenez hurren).

Erregaien prezioa

EAEn, abenduan, gasolioaren prezioa 1,13 €/l izan zen (urtebetean %3,4 igo da), eta gasolinarena 1,23 €/l (urtebetean %2,8 egin du gora).

CO₂-aren prezioa

CO₂-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 7,6 €/t izan zen abenduan, eta urtebete lehenago izandakoarekin konparatuta, %46 igo da.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, EEX, Japoniako Industria Ministerioa eta BAFaren datuetan oinarrituta.